

JARDUKETA IZENA	D4 Jarraipen sozioekonomikoa
Zer KBEtan edo Kontserbazio Bereziko Eremutan dihardugun	
Proiektuko guztietan	
LOTURA NATURA 2000rekin	
Proiektuak tokiko sozioekonomian dituen ondorioak ez daude zuzenean lotuta Natura 2000rekin, baina garrantzitsua da kontuan hartzea ekosistema asko erabilera sozioekonomikoen mendean daudela. Adibidez, sega-belardiak, ohikoak ibai-bazterrean, bakarrik mantentzen dira, baldin eta belarra moztu eta aprobetxatzen duten azienda-erabilerak badaude, eta baldin eta sega-belardiak kontserbatzeko ardura badute.	
KBeko funtsezko elementu onuradunak	
JARDUKETA LEKUA ETA UDALERRIAK:	
Proiektuaren esparru osoa.	
Data	
Proiektua gauzatu bitartean.	
Aurrekontua	
0 € (jarraipena proiektuaren ohiko administrazio-lanetan dago sartua)	
Proiektuaren ekintza loturikoak (jarraipenak)	
Proiektuko ekintza guztiak (prestaketa-ekintzak, kontserbazio-ekintzak, komunikazio-ekintzak eta koordinazio-ekintzak).	
Lanaren deskribapena - HELBURUAK	
Ekintza honen helburua da ebaluatzea zer ekarpen egiten dion proiektuak sistema sozioekonomikoari.	
Lanaren deskribapena - AURREKARIAK	
Komeni da lurraldean zuzenean aplikatuko den proiektuaren inbertsioen eta gastuen zenbatekoa jakitea, bai eta zer esparrutan ere (eskualdean, probintzian, tokian), eta era berean, komeni da jakitea zer-nolako gaitasuna duen ekonomia edo lan jarduera berria sortzeko. Izan daitezkeen eragin horien munta eta norabidea jakiteak aukera emanen du proiektuaren ondorio sortaren irudi zabalagoa eskura izateko.	
Lanaren deskribapena – AURREIKUSITAKO LANAK/JARRAIPENEN DESKRIBAPENA	
Jarraipena egiteko kontuan hartuko da egiazki zenbat inbertsio eta gastu egin diren proiektuaren eragin sozioekonomikoaren eremuko udalerrietan (toki esparrua) edo haietatik kanpo (probintzian eta eskualdean). Horrela, proiektua bukatzean aztertu ahal izanen da zer proportzio itzuli den tokiko eragileengana, eta era berean, zer ekarpen egin zaion enplegua sortu eta mantentzeari.	
JUSTIFIKAZIOA Zer lortu nahi dugu? – ESPERO DIREN EMAITZAK	
Espero den emaitza da proiektuaren tokiko eta eskualdeko inbertsioen proportzioa jakitea.	

